0 AURREKARIAK

Biscaytik Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da, nazioarte mailan izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena duena, helburutzat honako hauek dituelarik: komunikazio kanal berri baten bidez, Internet bidez, Administrazioa herritarrengana hurbilaraztea bien arteko elkarrekintza erraztuz; horrez gain, Bizkaiko Udaletako barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko tresna informatikoak homogeneizatzea; eta Bizkaia informazio teknologietan eta Udal Administrazioaren ezagupenean nazioarteko erreferentzia bilakatzea.

Helburu hau betetzeko, proiektuak hiru ardatz ditu,

- Herritarrentzako posta elektroniko zerbitzua.
- Udalerrientzat programa informatikoak eta herritar bideratzea duen web ataria.
- Nazioarteko erreferentziadun Teknologia Zentro bat sortzea.

1 XEDEA

Lehiaketa honen xedea da honako zerbitzu hauek emateko kontratua: arratoi-garbiketa, desinfektatzea, intsektu-garbiketa, legionella kontrolatzea, xilofagoak kontrolatzeko eta prebenitzeko tratamendua, barnealdeko kalitatea eta lorezaintza, Bake Eder Ezagutza Zentroko gune berdeetan eta zuhaiztian.

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

2.1 Prestazioaren deskribapen orokorra

Esleipendunak gai izan beharko du erakunde kontratatzaileari kudeaketa integrala eskaintzeko, eta, berehala, kontratuaren eskura jarri beharko ditu xedean deskribatutako zerbitzuen arlo guztietako espezialistak.

Zerbitzua adjudikaziodunak emango du, kalitatez, zorroztasunez eta eraginkortasunez, eta zerbitzua zuzenean edo zeharka arautzen duten indarreko lege, erregelamendu, arau eta xedapen guztiak erabat beteko ditu.

Kontratuaren xede diren jardueren martxa egokia uneoro gainbegiratzeaz arduratuko den pertsona bat izendatu beharko da.

Enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den zerbitzu arrunta betetzeko behar diren langileak izan beharko ditu.

Adjudikaziodunak zerbitzua ematen duten langileak kontrolatu eta ikuskatuko ditu, eta, gaixotasunen, oporren eta absentzien kasuan, beste langile kualifikatu batzuekin ordeztuko ditu.

Hala ere, lanak Biscaytik Fundazioak eskatuta egingo dira, Biscaytik Fundazioak bestelako kontratuak beste esleipendunekin egiteko aukera kaltetu gabe, baldintza-orriaren xede diren gaiei dagokienez.

Lanak zer-nolako maiztasunarekin egingo diren jasoko duen plangintza aurkeztu beharko da.

Hona hemen zerbitzu honetan egin beharko diren gutxieneko zereginak:

a.- Desratizazioa, Intsektu-Kentzea eta Desinfekzioa

Enpresa esleipendunak arratoiak eta saguak desagerrarazteko, intsektuak agertu daitezen prebenitzeko, intsektu horiek hiltzeko eta mikroorganismoen populazioak murrizteko lanak egin beharko ditu. Horretarako, urtean zenbait kanpaina egingo dira, mota bakoitzerako. Kanpaina horiek modu antolatuan eta egokian egin beharko dira, kasu bakoitzean.

Plangintza ezberdina aurkeztu beharko da, egin beharreko jarduketa bakoitzeko eta Ezagutza Zentroko alde eta eraikinetako barnealdeko eta kanpoaldeko alde bakoitzeko.

Enpresa esleipendunak behar adina txosten egingo ditu, eta datak, tratamenduak eta erabilitako produktuak zehaztuko ditu. Biscaytikek izan beharko ditu txosten horiek, lanak egin eta 72 ordutan.

Erabili beharreko produktuei begira, enpresa esleipendunak ingurumen-erabilerako pestizidak gutxi erabiliko direla hartuko du aintzat. Pestizida horiek Osasun eta Kontsumo Ministerioko Osasun Publikoko Zuzendaritzaren pestiziden erregistroan izena emanda egon beharko dute, eta ingurumenaren kontrako kalterik txikiena egingo dutenak erabiliko dira. Produktu horiek erabiltzea beharrezkoa bada, Biscaytikeko arduradunek egindako eskaera bereziaren bitartez erabiliko dira. Eragin ekologikoak hartu beharko dira aintzat, bai konposizioari dagokionez, bai aplikazio-metodoari dagokionez.

b.- Legionelaren Kontrola

Biscaytik Fundazioak ur sanitarioa, beroa eta hotza, banatzeko sistemak ditu, eta, oro har, legionella egon, inkubatu edo ugaldu daitekeen instalazioak. Enpresa esleipendunak instala-zio horien prebentziozko kontrol eta desinfekzio egokiak egingo ditu bakterioa ugaltzea eta barreiatzea saihesteko. Enpresa horrek kontratu honen aplikazio-eremuko instalazioetan Legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-baldintzak ezartzen dituen ekainaren 21eko 487/2022 Errege Dekretua betetzen direla bermatu beharko du, baita lege horri dagokionez gerora egindako aldaketak ere.

Enpresek legionella kontrolatzeko plan bat proposatu beharko dute, 487/2022 Errege Dekretuaren PSL ereduan eta OMEren gomendioetan oinarrituta. PSL hori, funtsean, arriskuen ebaluazioan eta lehenespenean oinarrituko da instalazioaren arriskuak eta gertaera arriskutsuak identifikatuz.

Enpresa esleipendunak behar bezala eguneratuko ditu instalazioen erregistro-liburuak, egiten dituen lanei dagokienez, eta jasota utziko ditu 487/2022 Errege Dekretua betetzeko beharrezkoak diren zeregin guztiak.

Enpresa lizitatzaileek Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofizialean inskribatuta egon beharko dute, urriaren 11ko 1054/2002 Errege Dekretuak, biozidak erregistratu, baimendu eta merkaturatzeko ebaluazio-prozesua arautzen duenak, ezarritakoarekin bat.

Enpresa esleipendunak jasotako Legionella laginen analisia egiten duen laborategiak ENACek zeregin horretarako behar bezala egiaztatuta egon beharko du. Ondore horietarako enpresa esleipendunak laginak aztertuko dituen laborategiko ENAC egiaztagiriaren kopia eman beharko dio Udaleko arduradunari, kontratua sinatzen denetik gehienez ere hilabeteko epean.

Mantentze-lan higieniko-sanitarioak egiten dituzten langile guztiek 487/2022 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Kontratua sinatu eta gehienez ere 15 eguneko epean, enpresa esleipendunak hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dio kontratuaren arduradunari.

Halaber kontratu honen xede diren instalazioak garbitzeko eta desinfektatzeko erabiliko diren produktu kimiko guztiek Osasun Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren baimena izan behar-ko dute eta 487/2022 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko dute. Ondore horretarako, enpresa esleipendunak, kontratua sinatu eta gehienez ere 15 eguneko epean, erabili beharreko produktu kimikoen segurtasun-datuen fitxak eman beharko dizkio kontratuaren arduradunari, substantzia eta prestakin arriskutsuen arloan indarrean dagoen araudiak (363/1995 ED eta 1054/2002 ED) ezartzen duenarekin bat.

Gainera, 487/2022 Errege Dekretua betez, enpresa esleipendunak PSL legionellaren aurkako osasun-plana entregatu beharko du kontratuaren lehen hilabetean.

Osasun-agintaritzak kontratu honen esparruko instalazioen ikuskapen programatua egiten badu enpresa esleipendunak bertan egon beharko du, Biscatik Fundazioaren ordezkari gisa bertaratzen den pertsonarekin edo pertsonekin batera.

c.- Kontrol eta xilofagoen aurkako prebentzioaren tratamendua

Jarduketak bi fasetan egingo dira:

1.- Ikuskapena eta instalazioa.

Eraikinak eta kanpoko guneak ikuskatu beharko dira aldez aurretik, eta, horretarako, tratatu beharreko gunea behatuko da, infekzio-maila eta jarduketa egingo den tokiaren egoerari buruzko diagnostikoa detektatzeko, bai eta desagerrarazi beharreko termita-espeziea eta termita horiek areagotu daitezen ahalbidetu dezaketen fokuak eta faktoreak identifikatzeko ere.

Tratamendu-sistema infektatutako tokietan instalatzea, baita berezko ezaugarriek eta ingurunearen ezaugarriek hala eskatzen duten guneetan ere.

2.- Kontrola eta mantentzea.

Behin sistema instalatuta, instalazioak zorrotz kontrolatu eta mantenduko dira.

Egin beharreko lanen plangintza aurkeztu beharko da. Jarduketa bakoitza egin ostean, jarduketei buruzko txosten xehe bat egin beharko da.

d.- Barneko giroaren kalitatea

Instalazioen ikuskapen higieniko-sanitarioa egin beharko da, bai aireztapenari, bai aire-girotzeari dagokienez.

Hodiak berrikustean, UNE 100012 arauan ezarritakoa hartu beharko da aintzat, eta honako hauek egin beharko dira:

- Ikusizko azterketa.
- Bulkatzeko eta itzulerako hodien grabimetria balorazioa.
- Gainazalaren gaineko kontrol mikrobiologikoa, RODAC kontaktu-plaken bitartez, ondoren, laborategian inkubazioa eta analisia egiteko.
- Ingurumen-kontrola.

Entseguak egunean zehar egingo dira, denborarekin izan duten bilakaera ebaluatzeko.

Ingurumen-kalitateko ikuskapena egitean, honako parametro hauek sartuko dira:

- Tenperatura eta hezetasun erlatiboa.
- Karbono dioxidoa.
- Esekiduran dauden partikulak.
- Karbono monoxidoa.
- Ingurumen-kontrol mikrobiologikoa.

Behin programa operatibo bakoitza amaituta, emaitzei buruzko dagokion txosten xehea bidaliko da hilabeteko epean, eta, bertan, erabilitako metodoa zehaztuko da, bai eta erabilitako ekipamendua ere. Homologazioa eta kalibrazioa ere jasoko dira.

Akatsak edo desadostasunak aurkituko balira aurretik aipatutako araudian, gomendioetan edo jardunbide egokiei lotutako gidaliburuetan, Biscaytikek proposatuko ditu horiek konpontzeko neurri komenigarriak, eta kostuari buruzko balorazio estimatua egingo du.

Proposatutako neurrien egokitasuna berrikusteko azterketa egiteko, Biscaytikek ez du gastu gehigarririk ordainduko.

Aintzat hartu behar da enpresa esleipendunak egin beharko dituela hodiak higienizatzeko lanak, betiere, emaitza okerrak lortzen badira barnealderako kalitatearen azterketa egin ondoren.

e.- Lorezaintza

Lorezaintza-lanak egitean, kontuan hartu beharko da Ezagutza Zentroaren tipologia, betiere, barneko eta kanpoko guneei, lorategiei eta zuhaiztiari dagokienez.

Enpresa esleipendunak ebakitzeko, ereiteko eta ongarritzeko lanak egin beharko ditu, bai eta lorategietan egokitzat jotako beste lan batzuk ere. Horrez gain, belar artifiziala duten guneak mantenduko dira, kontserbatzeko eta erabiltzeko egoera bikainean egon daitezen.

Mantentze-lana modu zehatz batean egingo da, barneko eta kanpoko guneetako landare guztien tipologiaren arabera.

Zuhaiztiari dagokionez, egoeraren jarraipena egingo da, betiere, bertako zuhaitz bakoitzaren arabera. Gainera, zuhaitz horiek jasan litzaketen gorabeheren inguruko txosten xehea egingo da.

Enpresa esleipendunak egindako lanek eragindako hondakin guztiak kudeatuko ditu, eta hondakin horiek eramango ditu dagokien bilketa-guneetara.

3 KONTROLA ETA JARRAIPENA

Atal honetan proposatu behar diren eginkizunen helburua aldi oro zerbitzuaren egoerari buruzko ikuspegia izatea da. Horrela, gerta litezkeen desbideratzeak zehazteko eta behar diren ekintza zuzentzaileak aplikatzeko aukera ematen du.

Helburu hori betetzeko oinarrizko tresnak jarraipena egiteko txostenak dira. Txosten horiek dagozkien bilera eta batzordeetan aztertuko dira.

Lizitatzaileak bere proposamen teknikoan, ahalik eta erarik xehatuenean, proposatzen duen jarraipeneko kontrol-eredua deskribatu beharko du, zerbitzua ematean aplikatzeko.

Biscaytik Fundazioak arduradun bat izendatuko du bere garapena gainbegiratzeko eta azken emaitza onartzeko, adjudikazio enpresari behar beste agindu jakinaraziz.

Enpresa esleipendunak arduradun bakarra ezarriko du Biscaytik Fundazioarekiko ardura dela eta; hark Biscaytik Fundazioaren agindu orokorrak jasoko ditu, eta ardura horren bitartekaritzat jokatuko du. Hauek izango ditu bere gain:

- Egin beharreko lanen planifikazioa, jarraipena eta kontrola, baita bere kalitate maila egiaztapena.
- Eskaerak jaso Biscaytik Fundazioaren partetik. Eskaera horiek balioztatu eta planifikatu beharko ditu Biscaytik Fundazioarekin bat etorriz.

Lantaldeko koordinatzaileak Biscaytik Fundazioak eskatuz gero Biscaytik Fundazioaren egoitzan egon behako du bi ordutan, asko jota.

Lanak bukatutakoan, hornitzaileak egindakoa fakturatuko du onartutako balorazioan ezartzen denaren arabera. Biscaytik Fundazioak aurkeztutako lanak aztertuko ditu aldez aurretik onartutakoarekin bat datozela egiaztatzeko eta, azkenik, bere oniritzia emango die.

Fundación Biscaytik Fundazioak egindako lanen gaineko kalitate kontrola egitea beretzat gordetzen du. Horrela, gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak gaitzetsi ahalko ditu, bere irizpide propioei jarraiki. Hori guztia Fundación Biscaytik Fundazioak atzerapenen edo kontrataturiko zerbitzuen kalitate baxuaren ondotik jar ditzakeen penalizazioen kaltetan izan gabe egingo da. Halaber, kontratua ebazteko arrazoi justifikatua izan daiteke.

4 BALDINTZA BEREZIAK

4.1 Lantaldea eta betekizunak

Esleipendunak beharrezko giza baliabideak eta baliabide materialak jarri beharko ditu, egokitzen dizkioten zerbitzuak modu egokian egiteko, horrez gainera, kontratuaren xede den zerbitzu arrunta eskaintzeko beharrezkoak diren langileak izan beharko ditu.

Zerbitzuetako langile guztiek uniformez jantzita egon beharko dute. Uniformeak enpresaren identifikazio-zenbakia izango du. Langileei eman beharreko jantzien kopurua eta kalitatea indarrean diren hitzarmenek adostutakoaren araberakoa izango da.

Enpresa esleipendunak txukuntasunik, begirunerik eta jantzien uniformetasunik ezaren gaineko erantzukizuna hartuko du. Horrez gain, langileak zakarrak badira hirugarrenekin, edo gaizki tratatzen badituzte, horren gaineko erantzukizuna ere hartuko du enpresak, bai eta, zerbitzua emateagatik, Bake Eder Ezagutza Zentroko ondasun eta jabetzen kontrako edozein kalteren gainekoa ere.

Zerbitzura etengabe bideratutako ibilgailuek enpresaren identifikazio-zenbakia izan beharko dute.

Enpresa esleipendunak zerbitzua ematean zentroari eta hirugarren pertsonei eragin lekizkiekeen kalte eta galeren gaineko erantzukizun osoa hartuko du, eta aseguru-poliza dagoela egiaztatu beharko da.

Esleipendunak Biscaytik Fundazioak beste enpresa edo erakundeekin adosten dituen bileretara joateko konpromisoa hartzen du.

Kontratuak dirauen bitartean, lantaldearen osaketan egin daitezkeen aldaketek ezin izango dituzte memoria deskribatzailean adierazitako ezaugarriak aldatu. Edonola ere, aldaketa horiek Biscaytik Fundazioari jakinarazi beharko zaizkio aldez aurretik eta Biscaytik Fundazioaren berariazko baimena izan beharko du.

Esleipendunak lantaldea etengabe prestaturik mantentzeko ardura hartuko du, Fundación Biscaytik Fundazioak eskaturiko teknologia/funtzionalitate horietan. Prestakuntza horren kostua, enpresa esleipendunak prestakuntza hori jasotzeko jartzen dituen langileen dedikazioa bezala, haren konturakoa izango da.

Enpresa esleipenduneko langileek beharrezko dituzten ekipamendua, baimenak, komunikazioak eta joan-etorriak enpresak berak ordaindu beharko ditu.

Esleipendunak zerbitzua ematen duten langileen kontrola eta ikuskapena gauzatuko du, eta gaixotasun, opor edo hutsegite kasuetan kualifikatutako beste langile batekin ordeztuko du.

Hornitzaileak proposatutako lantaldeak karatulako 15.ii atalean eskatutako baldintzak bete beharko ditu.

4.2 Jarduera plana, premiazko kasuetan

Jarduketa-planak jarduketak proposatu beharko ditu, gorabeherak konpontzeko xedez. Plan horretan, aintzat hartu beharko dira jarduketa- eta plangintza-protokoloak, kritiko, garrantzitsu eta normaltzat jotako kasuetan.

Haren balioak hauek dira:

- Kritikoa: Bake Eder Ezagutza Zentroaren jardueraren funtzionamendua oztopatzen ez duen, baina konponbide azkarra eskatzen duen edozein gorabehera, jarduera egiten den bitartean gertatzen dena. Izan ere, gorabehera horien ondorioz, jarduera gelditu liteke, eta, gainera, horrek eragina izan dezake Biscaytik Fundazioaren irudian.

- Garrantzitsua: Bake Eder Ezagutza Zentroaren jardueraren funtzionamendua oztopatzen ez duen, Biscaytik Fundazioaren jardueran edo irudian eraginik ez duen, baina zentroko alde batek edo gehiagok lana normaltasunez egitea oztopatzen duen edozein gorabehera, jarduera egiten den bitartean gertatzen dena.

- Normala: Biscaytik Fundazioaren negozioan edo irudian inpakturik eragiten ez duten eta aplikazioaren funtzionamendu normala eragozten ez duten gorabeherak.

Jarduketa-planaren baitan, honakoa bezalako taula bat sartu beharko da:

IRIZPIDEAK	PROPOSAMENAREN BALIOA DENBOREN PLANGINTZA
Kontsulta eta laguntza Kritikoaren erantzuna	
Kontsulta eta laguntza Garrantzitsuen erantzuna	
Kontsulta eta laguntza Normalen erantzuna	

4.3 Aurkezteko ezarritako denbora

Lantaldearen edozein partaide Biscaytik Fundazioan aurkeztuko da bi ordu baino lehenago Biscaytik Fundazioak horrela eskatzen badu. Ez da onartuko puntu hau betetzen ez duten eskaintzarik.

4.4 Plangintza

Enpresa lizitatzaileak hileko plangintza aurkeztu beharko du arratoiak kentzeko, desinfektatzeko, intsektuak kentzeko, legionella kontrolatzeko, xilofagoak prebenitzeko, kontrolatzeko eta tratatzeko eta barne-giroaren kalitaterako.

Horrez gain, lorezaintzan zerbitzua emateko hilean beharrezkoa den ordu kopurua adierazi beharko da. Baldin eta, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, posible ez bada lizitatzaileak proposatutako hileko ordu guztiak egikaritzea, soberan daudenak orduen poltsan sartuko dira, hurrengo hiru hilabeteetan egikaritzeko.

4.5 Berme aldia

Enpresa adjudikaziodunak era egokian burutu beharko ditu kontratatu diren lanak eta horietan egon daitezkeen eta kontratuaren indarraldian jakinaraziko zaizkion akatsak zuzendu beharko ditu. Kontratuaren indarraldia amaitu ondoren bermealdiak indarrean jarraituko du gutxienez sei hilabeteko epean.

Bermealdia baliagarria da Biscaytik Fundazioko pertsonalak lanen betearazpenean edo garapenean aztertu eta berrikusi arren edo frogaketa, balorazio edo emate partzialetan onartu arren.

Enpresa adjudikaziodunaren konpromisoa da bere akatsen edo beste aplikazioen edo kanpoko esku hartzeen ondorioz ez eragindakoen funtzionaltasun ezak konpontzea eta Biscaytik Fundazioarentzat inolako kargurik eragin gabe egitea.

4.6 Lanen Kontrola

Biscaytik Fundazioak egindako lanen gaineko kalitate kontrola egitea beretzat gordetzen du. Horrela, gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztenak gaitzetsi ahalko ditu, bere irizpide propioei jarraiki. Hori guztia Biscaytik Fundazioak atzerapenen edo kontrataturiko zerbitzuen kalitate baxuaren ondotik jar ditzakeen penalizazioen kaltetan izan gabe egingo da. Halaber, kontratua ebazteko arrazoi justifikatua izan daiteke.

Enpresa esleipendunak irtenbide mekanizatuak jarriko ditu zerbitzuaren kudeaketa eta jarraipenerako.

4.7 Zigorrak

Jarraipenaren kontrola egiteko bileretan, eta Zerbitzu Mailari dagozkion txostenetan oinarrituz, ezarritako Zerbitzu Mailetan gertatu diren desbideratzeak egiaztatuko dira. Desbideratzeek zigorrak eragingo dituzte ondorengo baldintzak gertatzen diren hilabeteetan.

Adierazle bakoitzean egindako ez-betetze bakoitzarengatik, hilero aplikatu beharreko zigor osoak % 1 egingo du gora; gehienez ere, % 15 egin dezake gora.

Adierazle bakoitzeko gehieneko zigorra %5ekoa izango da. Halere, muga horretara heltzerakoan, erakunde kontratugileak hitzarmena erabakitzeko eskubidea dauka.

Biscaytik Fundazioan aurkezteko denborak enpresa hornitzaileak zehaztutako gehieneko, bere eskaintzan epea gainditzen duen bakoitzean, 300,00 euroko zigorra ezarriko da (BEZ gabe).

Biscaytik Fundazioak aurretik egin izan balu ordainketa, kontratatutako enpresak Biscaytik Fundazioari ordainduko dio zigorrari dagokion zenbatekoa.

4.8 Genero ikuspegia

Dagozkien proposamenak egin eta aurkezteko, enpresa lizitatzaileek hizkera ez sexista erabili beharko dute. Halaber, enpresa esleipendunak, kontratua indarrean den bitartean, hizkera ez sexista erabili beharko du behin betiko dokumentu guztietan, izan idatziak edo digitalak, eta, pertsonei dagokien edozein estatistika egiteko, datuak sexuen arabera banandu beharko ditu. Hori guztia Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 2.3 artikuluari jarraikiz, zeinean errespetatu beharreko printzipio orokorrak zehazten baitira.

Enpresa esleipendunak kontratuaren helburu den prestazioa egin izanaren azken justifikazioan, hala badagokio, txosten bat aurkeztu beharko du, kontratazioan generoak izan duen eraginari buruz, adierazleak eta datuak sexuen arabera banatuta, hala erabiltzaileenak nola onuradunenak, edo zerbitzua ematen duten langileenak, aplikatutako berdintasun-neurriak ebaluatzeko aukera izateko.

5 ARGIBIDEAK

Edozein kontsulta edo argibiderako eta eskaintzak bidaltzeko, Biscaytik Fundazioak ondorengo helbidea jartzen du enpresa eskaintzaileen eskura: eskaintzak@biscaytik.eus

Kontsultetarako erantzunak eta argibideak Euskadiko kontrataziorako plataforman argitaratuko dira.

Hala badagokio, lizitatzaileek eskatutako informazio osagarria edo pleguei nahiz dokumentazio osagarriari buruz dituzten zalantzen gaineko argibideak eskaintzak jasotzeko ezarritako eguna baino gutxienez 6 egun natural lehenago emango dira, betiere, eskaera eskaintzak jasotzeko epea amaitu baino gutxienez 8 egun natural lehenago egin bada.

Izenpetua: Kontratazioko organoa